



## **HKEE-REN PRENTSA OHARRA, BARAKALDOKO UDALAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA – 2002.**

---

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Barakaldoko Udalaren 2002ko urtealdiaren Kontu Orokorraren eta ekonomia-finantza jardueraren gaineko fiskalizazio lana mamitu du. Txostena aho batez oniritzi dute HKEEren Osokoaren kideek.

Txostenak kontularitza eta legezkontasunari buruzko alderdiak besarkatzen ditu, udal kudeaketa hobetzeko gomendioak eta Udalaren finantza egoera aztertzen du. Halaber, Inguralde erakunde autonomoaren fiskalizazioa barne hartzen du, Eusko Legebiltzarraren Ekonomia eta Ogasun Batzordeak eskatu bezala.

Legezkontasunaren atalean, Udalaren beraren kontuari dagokionez, HKEEk aldeko iritzia eman du legea betetzea dela eta, salbuespen batzuk egin dituela.

Erakunde fiskalizatzaileak adierazi du arautegia urratzen duela Aurrekontua Udal Osokoak oniritzeko ez aurkezteak eta Kontu Orokorrean ez barne hartzeak geroko aurrekontuen kontura hartutako gastu konpromisoak.

Langileriarri dagokionez, HKEEk azaleratu du aurrekontuko zuzkidurak kolektiboen arabera ez bereizi izana (funtzionario, lan kontratupeko langile eta behin-behinekoak), Euskal Funtzio Publikoaren Legeak ezarritakoari jarraiki. Berebat, salbuespen modura jaso da 29 pertsona kontratatzeko erabilitako prozedura (aldi bateko kontratuak eta bitarteko funtzionarioen izendapenak), berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak betetzea bermatu gabe. Atal berean salatu da pentsioen sistema osagarrietara ekarpenak egiteko konpromisoa, fondo hauek arautzen dituen arautegiaren arabera gauzatu ez dena; baita, horiek zuzen aplikatu direla bermatuko duen kontrolbide eza ere. Amaitzeko, legezkontasunaren ezbetetze modura hartu da Udalaren Idazkariak Ezkerraldeko Udalerrien Mankomunitatean Idazkari postua bateragarri egitea, horren lanpostuak udaletxean bete-beteko dedikazioagatik ordainsari osagarria duenean.

Legezkontasuna betetzeari dagokionez, salbuespenak dituen beste atal bat HKEEk aztertutako zenbait espedientetan administrazio kontratazioak osatzen duena da.

Udal kontuei dagokienez, fiskalizazio txostenak ondorioztatu du egoki erakusten dutela udal jarduera, nahiz aurkeztutako datuei hainbat zuzenketa egin zaizkien, diruzaintza gerakina 18 milioi euro inguruan kokatzen dutenak.



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

Finantzaren egoerari dagokionez Udalak egungo inbertsio mailei eusteko duen gaitasuna azpimarratzen da.

Inguralde Erakunde Autonomoari dagokionez, kontuei egoki iritzi die HKEEk, horietan batere hutsik azaleratu gabe. Bestalde, legea betetzea dela eta, atal fiskalizatzailearen iritzia adekoa da, salbuespenak egin dituela Lanpostuen Zerrenda ezari, pentsioen sistema osagarrien ekarpenei eta aztertutako hainbat kontratari dagokionez.